

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

Arabako lurralde ordezkariak

2018ko laneko jaiegunen egutegia

Ebazpena, 2017ko irailaren 6koa, Lan eta Justizia Saileko Arabako lurralde ordezkariarena, 2018rako Araban tokiko jaiegunak ezartzen dituen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 12. artikuluan eta Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 37. artikuluan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzak, apirilaren 25eko 148/2017 Dekretuaren bidez (2017ko maiatzaren 2ko EHAA), honako hau onartu du: 2018. urtean, igandeez gain, hamabi egun baliogabe egotea lan-ondorioetarako.

Hona hemen hamabi egun baliogabe horiek:

Urtarrilaren 1a, Urteberri eguna.

Urtarrilaren 6a, Errege eguna.

Martxoaren 29a, Ostegun Santua.

Martxoaren 30a, Ostiral Santua.

Apirilaren 2a, Pazko Astelehena.

Maiatzaren 1a, Langileen Eguna.

Abuztuaren 15a, Andra Mari eguna.

Urriaren 12a, Espainiako Jai Nazionala.

Azaroaren 1a, Domu Santu eguna.

Abenduaren 6a, Konstituzio eguna.

Abenduaren 8a, Ama Birjina Sortzez Garbiaren eguna.

Abenduaren 25a, Eguberri eguna.

Lan eta Gizarte Segurantzako lurralde-ordezkariak eskuduna da honakoa ezartzeko: lurralde historikorako lanerako bi egun baliogabe, ordainduak eta errekuperatu behar ez direnak, tradizioz tokiko festak izan ohi direnak. Horretarako, dagozkien udaletako osoko bilkurek proposamena egin behar izan dute aurretik. Hori guztia, Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 5eko 134/2005 Dekretuaren 2. artikuluan eta apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera. Azken horrek Lan eta Justizia Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen du.

Udalekin egin beharreko kontsulta egin eta gero, honako hau,

ebazten dut

Lehena eta bakarra: Arabako lurralde historikoan, 2018rako tokiko eremuko bi jaiegunak, ordainduak eta errekuperatu behar ez direnak, lan-ondorioetarako lan baliogabetzat hartzen direnak, hauexek izango dira:

Arabako jaieguna

apirilaren 28a (San Prudentzio)

Toki mailako jaiegunak

Agurain		urriaren 9a	(Azokako asteartea)
Aiara	Agñaga	uztailaren 26a	(Done Jakue)
	Añes	maiatzaren 21a	(San Ramiro)
	Arespalditza	maiatzaren 15a	(San Isidro)
	Beotegi	irailaren 29a	(Done Mikel)
	Erbi	maiatzaren 3a	(Gurutzea)
	Etxegoien	maiatzaren 8a	(Antiguako Ama)
	Izoria	urtarrilaren 8a	(Done Julian)
	Kexaa	abuztuaren 6a	(Elurretako Andra Maria)
	Lexartzu	abenduaren 10a	(Sortzez Garbiaren eguna)
	Luxo	abuztuaren 16a	(Jasokundearen eguna)
	Luiaondo	uztailaren 23a	(Magdalena eguna)
	Llantenó	uztailaren 26a	(Done Jakue)
	Madaria	azaroaren 23a	(San Klemente)
	Maroño	urtarrilaren 17a	(San Anton)
	Menagarai	ekainaren 29a	(Done Petri)
	Menoio	apirilaren 25a	(San Marko)
	Murga	ekainaren 25a	(Done Joane)
	Olabezar	urtarrilaren 24a	(San Babilas)
	Opellora	irailaren 29a	(Done Mikel)
	Ozeka	urriaren 8a	(Errosarioko Andra Maria)
Retes de Llantenó	uztailaren 23a	(Magdalena eguna)	
Salmantón	uztailaren 18a	(Dona Marina)	
Soxo	abuztuaren 30	(Done Meteri)	
Zuhatza	uztailaren 18a	(Dona Marina)	
Alegría-Dulantzi		otsailaren 3a	(San Blas)
Amurrio		abuztuaren 16a	
Añana		uztailaren 10a	(Done Kristobal)
Aramaio		uztailaren 2a	
Armiñón		azaroaren 30a	(San Andres Apostolua)
Arraia-Maeztu		ekainaren 18a	(San Adrian)
Arratzua-Ubarrundia		abenduaren 26	(San Esteban)
Artziniega		irailaren 7a	(Arteako Andra Maria)
Asparrena		ekainaren 29a	(Done Petri)
Barrundia		ekainaren 25a	(Jon Deuna)
Bastida		azaroan	(Esker Oneko 2. eguna)
Berantevilla		irailaren 8a	(Jaiotzaren eguna)
Bernedo		irailaren 7a	
Bilar		abuztuaren 16a	(San Roke)
Burgelu		ekainaren 29a	(Done Petri)
Donemiliaga		azaroaren 12a	(Done Milian)
Elciego		irailaren 10a	(Plazako Andra Maria)
Erribera Beitia		abuztuaren 27	
Erriberagoitia		maiatzaren 15a	(San Isidro Nekazarria)
Eskuernaga		maiatzaren 15a	(San Torkuato)
Gaubea		maiatzaren 15a	
Harana		maiatzaren 15a	(San Isidro Nekazarria)
Iekora		abuztuaren 24a	(Berzijanako Andra Maria)

Iruña Oka	abuztuaren 16a	(San Roke)
Iruraiz-Gauna	ekainaren 25a	(Done Joane)
Kanpezu	maiatzaren 15a	(San Isidro)
Kripan	irailaren 8a	(Andra Maria)
Kuartango	apirilaren 30a	
Lagran	abuztuaren 24a	
Laguardia	ekainaren 29a	(Done Petri)
Lantziego	irailaren 8a	(Landako Andra Maria)
Lantarón	irailaren 17a	(Done Kornelio eta Done Zipri)
Lapuebla de Labarca	abuztuaren 24a	(Done Bartolome)
Laudio	abuztuaren 16a	(San Roke)
Legutio	irailaren 10	(Kofradiak)
Leza	abuztuaren 16a	(San Roke)
Mañueta	abuztuaren 24a	(Done Bartolome)
Moreda Araba	urriaren 22a	(Alodia eta Nunilo Santuak)
Navaridas	ekainaren 2a	(Done Joane Ortegakoa)
Okondo	abuztuaren 24a	(Done Bartolome)
Oyón-Oion	urtarrilaren 22a	(Bikendi eta Anastasi Santuak)
Peñacerrada-Urizaharra	maiatzaren 15a	
Samaniego	irailaren 7a	(Haranako Andra Maria)
Urkabustaiz	urriaren 8a	(Errosarioko Andra Maria)
Vitoria-Gasteiz	uztailaren 25a	(Santiago Apostolua)
Zalduondo	uztailaren 7a	(Hargatiko Eguna)
Zanbrana	abenduaren 13a	(Santa Luzia)
Zigoitia	abuztuaren 6a	
Zuia	irailaren 29a	(Done Mikel)

Vitoria-Gasteiz, 2017ko irailaren 6a

Arabako lurralde ordezkaria

ÁLVARO IRADIER ROSA